

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2024ko otsaila

Aurkibidea

1. EAEko hazkundera
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Enpresarien konfiantza
5. Inguruneko hazkundera
6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %1,8 hazi zen 2023an.

Urteko batez bestekoan, lanaldi osoko 16.000 lanpostu inguru sortu ziren.

2. Okupazio tasak gora egin zuen 2023. urte osoan zehar.

Langabezia tasak %7,0an amaitu zuen urtea, 2008tik erregistratu den zifrarik baxuena baita.

3. Inflazioa %3,1era apaldu zen urtearen amaieran.

Elikagaien eta erregaien prezioek urte arteko tasa murrizten lagundu zuten.

4. EAEko enpresen konfiantza zertxobait hobetu da urtearen hasierarekin

Azken hiruhilekoaren balorazioa positiboa izan da, baina zalantzak daude oraingo hiruhilekoari buruz.

5. Ekonomia nagusiek shock desberdinei abiadura desberdinetan egiten diete aurre.

AEBek hazkundera bizkortu dute, eta euroguneak, ordea, moteldu.

6. NDFk munduko ekonomiaren hazkunde egonkorra aurreikusten du 2024an eta 2025ean.

Diru politika murriztaileek, bultzada fiskal txikiagoak eta produktibitate apalak hazkundera geldiarazten dute.




EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %1,8 hazi zen 2023an

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA
%1,6



Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %1,6 hazi zen 2023ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berearekin alderatuta. Oraindik inflazio handia, diru politika murriztailea, nazioarteko merkataritza baldintzatzen duten gatazka geopolitikoak eta ziurgabetasun handia gorabehera, EAEko ekonomiak hazkunde erritmoa egonkortzea lortu du. Halaber, urteko batez bestekoan, sektore ekonomiko guztiek lortu zuten balio erantsia handi-


tzea, eta horrek agerian uzten du ekonomia sendo dagoela eta balizko atzeraldi batetik urrun dagoela.

Egonkortasun hori hiruhileko arteko tasen bila-kaeran ere islatzen da (%0,4), azken bost hiruhilekoetan ia ez baitira aldatu. Urteko batez bestekoan, EAEko BPG %1,8 hazi zen 2023an, Eusko Jaurlaritzak aurreikusitakoa baino hamarren bat gehiago.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA
%0,4




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%2,0



Lan merkatuari dagokionez, iazko laugarren hiruhilekoan enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, urte arteko %2,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoan hasitako goranzko joera bizkortuz. Hiruhilekoen arteko terminoetan, zenbatetsitako igoera %0,5 izan zen. Aldaketa horien guztien ondorioz, urte osorako lehen zenbatespenak erakusten du enplegua, batez beste, %1,7 handitu zela 2023an, eta tasa horrek esan nahi du 16.000 lanpostu inguru sortu direla urtebetean, Eusko Jaurlaritzak kal-

kulatutako 13.000 lanpostuen gainera. Era berean, igoera horrek lanpostuen kopurua milioi-
ra hurbiltzen du, eta maila hori 2007. urtearen amaieran eta 2008. urtearen hasieran soilik gainditu da.


Enpleguaren bilakaera on horrek gastatzeko nolabaiteko gaitasuna dagoela bermatzen du, eta kontsumo pribatuaren bultzada indartzen du. Horrek EAEko ekonomiaren osasun ona berresten du.

ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

4. HIRUHILEKOA

%0,5



Iturria: Eustat.



Okupazio tasak gora egin zuen 2023. urte osoan zehar


ENPLEGU TASA. 16-64 URTE

BITARTEKOA.

Ehunekoak

4. HIRUHILEKOA

%70,5



BJAk 2023ko laugarren hiruhilekorako zenbatetsi dituen datuen arabera, Euskadin 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren okupazio tasa %70,5ean kokatu zen. Beraz, azken urteetako kopururik handiena eskuratu da. Halaber, adierazle horrek gora egin zuen iazko lau hiruhilekoetan.


Sexuaren arabera azterketak adierazten du okupazioaren igoera handiagoa izan zela emakumeen artean, baina gizonen tasak ere

gora egin zuen urtean zehar. 2022ko hiruhileko berarekin alderatuta, tasa orokorra zortzi hamarren hobetu zen, emakumeena bederatzi hamarren eta gizonena, azkenik, sei hamarren. Balio horien arabera, urteko batez besteko okupazio tasa %70,0 izan zen, 2022an lortutakoa baino puntu erdi bat altuagoa. Gizonen enplegu tasa hiru hamarren handitu zen, %73,1eraino, eta emakumeena, berriz, zazpi hamarren, %67,0eraino.

ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

EMAKUMEAK


Ehunekoak



ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

GIZONAK


Ehunekoak



Langabezia tasari dagokionez, laugarren hiru hilabekoan erregistratu zen balioa %7,0 izan zen, 2008aren amaieratik lortutako txikiena baita. Kasu horretan, emakumeen langabezia tasa neurri handiagoan murriztu zen, eta gizonen tasaren azpitik geratu da (%6,9 eta %7,1, hurrenez hurren). Halaber, alde handia dago Espainiako nazionalitatea duten pertsonen eta beste nazionalitate bat dutenen langabezia tasen artean. Zehazki, azken horrek (%17,4) hirukoiztu egiten du nazionalena (%5,7).


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Inflazioa %3,1era apaldu zen urte amaieran

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Joan den abenduan, kontsumoko prezioak hiru hamarren apaldu ziren, eta urte arteko KPI %3,1ean kokatu zen, azken lau hilabeteetako erregistrorik txikiena baita. Inflazioaren portaera hori, batez ere, elikagaien prezioek izan zuten bilakaerak eragin zuen, eta, neurri txikiagoan, erregaiek ere, aldakuntza tasa negatiboak jasotzen jarraitzen baitute.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2023ko abendua
Inflazio osoa	8,1	3,6	3,1
Azpiko inflazioa	5,1	6,2	3,9
- Elikagai landuak	10,2	12,5	5,8
- Industria ondasunak	4,7	4,7	2,2
- Zerbitzuak	3,3	4,3	4,1
Hondar inflazioa	19,5	-6,4	-1,1
- Landu gabeko janariak	10,8	7,3	7,2
- Energia	26,6	-17,0	-7,3


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Horiek horrela, prezioak 2023an hasi ziren %6 inguruko tasetatik aldentzen dira, eta etengabe ari dira moteltzen irailaz geroztik, maila efektuaren ondoriozko aldaketa nabarmenek markatutako urte batean. Beheranzko bilakaera horretan, elikagaien prezioen portaera nabarmendu behar da, haien hazkundea %6,8 izan baitzen, 2022ko martxotik izandako tasarik txikie-

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



na, eta azaroan baino 2,1 puntu txikiagoa. Era berean, abenduan prezioen bilakaerak beherantz egin zuen beste faktoreetako bat elektrizitatea izan zen, urte osoan zehar etengabe jaitsi baitzen. Prezioak normalizatzeko joera horri esker, urte osoko inflazioaren batez bestekoa %3,6 izan zen, 2022ko batez bestekoa (%8,1) baino askoz txikiagoa.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa

	Euskadi Abendua	Espainia Abendua	Euskadi Urteko batez bestea	Espainia Urteko batez bestea
INDIZE OROKORRA	3,1	3,1	3,6	3,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	6,8	7,3	11,1	11,7
Edari alkoholdunak eta tabakoa	2,8	3,4	7,0	7,6
Jantziak eta oinetakoak	1,9	1,6	2,0	2,2
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-6,8	-5,9	-12,0	-11,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,8	2,0	6,0	5,0
Osasuna	2,4	2,2	2,3	1,9
Garraioa	4,6	3,9	0,3	-0,4
Komunikazioak	3,2	3,1	3,2	3,1
Aisia eta kultura	3,0	3,1	4,6	4,4
Hezkuntza	2,2	3,0	1,9	2,0
Jatetxeak eta hotelak	5,4	5,5	6,2	6,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,3	3,8	5,4	4,7

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.



ENPRESARIEN KONFIANTZA


EAEko enpresen konfiantza zertxobait hobetu da urtearen hasierarekin

INEk 2024ko lehen hiruhilekoari dagokion enpresen konfiantzaren indizea argitaratu berri du. Estatistika eragiketa horren arabera, EAEko enpresek tonu baikor samarra erakutsi dute, nahiz eta inguruko zailtasunak nabariak diren. Hori horrela izanda, adierazleak lortutako balioa 133,3koa da, azken urteetan behin bakarrik gainditua izan dena, bi hiruhileko lehenago jaso


zen 135,5ak. Alde batetik, 2023ko laugarren hiruhilekoaren balorazioa positiboa izan da, hau da, gehiago izan ziren beren jarduera maila ontzat jo zuten enpresak kontrakoa uste zutenak baino. Oraingo hiruhilekoari begira ere sentimendu baikorra dago, nahiz eta aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta baikortasun hori zerbait murriztu den.

ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI


1. HIRUHILEKOA
133,3



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA


1. HIRUHILEKOA 134,0




Estatu osoan, enpresen konfiantza indizeak ere saldo positiboa utzi du, 134,0ko mailara iristen dena, hobekuntzarako joera jarraitua erakutsiz eta 2023ko hirugarren hiruhilekoan azken urteetako balio maximoa eskuratuz. 2024ko lehen hiruhilekoko datua ere azken urteetako bigarren handiena da. Izan ere, egungo balorazioa 2019an, pandemiaren aurretik, izandakoaren antzekoa da.

EA Eren kasuan bezala, laugarren hiruhilekoari buruzko erantzunek saldo positiboa erakusten dute: enpresen laurden batek baikortasuna erakutsi du aurreko hiruhilekoaren jarduerari buruz, eta %16,5ek, aldiz, aldi hori negatibotzat jotzen du. Horrek 8,1eko saldoa uzten du, azken urteetako handiena. Baikortasuna txikiagoa da oraingo hiruhilekoari dagokionez, saldo apur bat negatiboa utzi baitu.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOA Z DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOA Z DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.




INGURUNEKO HAZKUNDEA

Ekonomia nagusiek shock desberdinei abiadura desberdinetan egin diete aurre

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA 2023
%5,2




Munduko jarduera ekonomikoak dinamismo maila esanguratsua erakutsi zuen 2023an, nahiz eta moneta politika globalaren kutsu murritzalea eta izaera geopolitikoko ziurgabetasun iturri ugariak nabarmenak ziren. Izan ere, argitaratutako lehen kalkuluen arabera, munduko ekonomia %2,8 hazi zen 2023an, eta horrek agerian uzten du egungo ziklo ekonomikoaren erresilientzia. Hala ere, hazkunde maila desberdina izan zen eremu ekonomiko nagusien artean, eta, gaingiroki, ekonomia aurreratuen balaztak, bereziki Europakoak, eta Txinaren tira-bira txikiagoak markatu zuten. Hain zuzen

ere, Txina %5,2 hazi zen, gobernuaren helburuaren gaineratik, baina badirudi zalantzak ez direla argitu: higiezinaren sektoreak ordu txikitzen jarraitzen du, inflazioak negatiboan amaitu du urtea, inbertsio pribatuek behera egin dute, esportazioek atonia zantzuak erakusten jarraitzen dute eta gazteen langabeziak langabezia tasa orokorra ia hirukoiztu du. Bilakaera hori ez dator bat AEBetan izandakoarekin; izan ere, lan merkatuaren sendotasunak eta bildutako aurrezkiaren geldikinek kontsumo pribatua eta inbertsioa bultzatu zituzten indarrez, eta, horregatik, herrialde hartako BPGA %2,5 hazi zen.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPGA 2023
%2,5




EBKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNeko BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



Aitzitik, Europar Batasuna eta euroaren eremua %0,5 baino ez ziren hazi, bi eremuak jasaten duten hoztearen erakusgarri. Alemaniak %0,3 egin zuen behera, eraikuntzako eta makineriako eta ekipoko kapital finkoaren eraketa gordinaren beherakada nabarmenaren ondorioz; Frantzia, berriz, kanpoko sektorearen jarduera okerragoak %0,9ra mugatu zuen BPGaren hazkundera. Datu positiboa Espainiako ekonomiaren eskutik iritsi zen, iazko azken hiruhilekoan ustekabeko gorakada lortu baitzuen kontsumo publikoak eta esportazioek bultzatuta, eta urteko BPGa %2,5eraino bultzatu zuen, euroaren ekonomia handien hazkunderaren lider bihurtuz.


ESPAINIako BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIako BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



ALEMANIako BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: ELGA, BEA, Eurostat eta INE.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

NDFk munduko ekonomiaren hazkunde egonkorra aurreikusten du 2024an eta 2025ean.

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, munduko ekonomia %3,1 hazi da 2023an, eta 2024an ere maila horretan jarraituko duela aurreikusten du, 2025ean %3,2ko igoera txiki bat erregistratu aurretik. Txinan eta AEBetan igurikimenak hobetu diren arren, 2024rako eta 2025erako aurreikuspen globalak batez besteko historikoaren azpitik daude. Erakundeak hazkunde motelago hori inflazioari aurre egiteko diru politikei, zerga bultzada txikiagoari eta produktibitate apalagoari egozten die.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2023	2024	2025	2024	2025
Munduko ekonomia	3,1	3,1	3,2	0,2	0,0
Ekonomia aurreratuak	1,6	1,5	1,8	0,1	0,0
AEB	2,5	2,1	1,7	0,6	-0,1
Eurogunea	0,5	0,9	1,7	-0,3	-0,1
Alemania	-0,3	0,5	1,6	-0,4	-0,4
Frantzia	0,8	1,0	1,7	-0,3	-0,1
Italia	0,7	0,7	1,1	0,0	0,1
Espainia	2,4	1,5	2,1	-0,2	0,0
Erresuma Batua	0,5	0,6	1,6	0,0	-0,4
Japonia	1,9	0,9	0,8	-0,1	0,2
Garatzen ari diren herrialdeak	4,1	4,1	4,2	0,1	0,1
Txina	5,2	4,6	4,1	0,4	0,0
India	6,7	6,5	6,5	0,4	0,0
Errusia	3,0	2,6	1,1	1,5	0,1
Brasil	3,1	1,7	1,9	0,2	0,0


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEBETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Hala, 2024an ekonomia aurreratuen hazkundeak behera egingo duela aurreikusten da, eta, ondoren, 2025ean susperraldia izango dela; al-diz, gorabidean dauden ekonomiek hazkunde egonkorriari eutsiko diotela espero da.

2024rako inflazio igurikimenek bere horretan jarraitzen dute, baina beherantz doitu dira (ehuneko 0,2 puntu 2025erako). Horrela, inflazio globala 2023ko %6,8tik 2024ko %5,8ra eta 2025eko %4,4ra pasatuko da, nahiz eta, NDFren arabera, desinflazioa azkarrago gertatuko den ekonomia aurreratuetan.

Arriskuen profila gero eta orekatuagoa da, bai inflazioaren joerengatik, bai Txinaren hazkundeagatik edo kontsolidazio fiskalagatik, zentzu batean edo bestean harrapa baitezakete; lehengai-ek eta arrisku geopolitikoek, berriz, profil negati-boarekin jarraitzen dute.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT.

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
BPG	6,0	5,4	3,4	2,3	1,5	1,6	1,6
Barneko azken kontsumoa	5,2	6,0	4,4	1,9	1,5	1,1	—
Familien kontsumoa	5,8	7,7	5,1	1,7	1,3	1,5	—
Administrazioaren kontsumoa	3,2	0,7	2,2	2,4	2,0	-0,6	—
Kapital eraketa gordina	5,9	8,7	4,8	1,6	2,5	2,6	—
Barne eskaria	5,3	6,7	4,5	1,8	1,7	1,4	—
Esportazioak	10,7	17,1	8,6	6,3	-2,5	-0,6	—
Inportazioak	9,4	18,7	10,2	5,5	-2,0	-0,7	—
Lehen arloa	15,1	-8,7	-7,3	2,1	-6,7	-2,3	—
Industria eta energia	5,3	4,7	2,4	1,1	-0,5	0,2	—
Eraikuntza	1,0	6,7	6,0	0,9	4,2	2,9	—
Zerbitzuak	6,6	5,9	3,7	2,9	2,1	2,0	—
Balio erantsi gordina	6,1	5,5	3,4	2,4	1,5	1,5	—
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	5,2	4,6	3,1	1,6	1,3	1,6	—
Enplegua	2,7	2,8	1,8	1,5	1,5	1,6	2,0

EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROA. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA.

Abendua

2022						2023					
Urtar.	Otsa.	Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Irail.	Urri.	Azar.	Aben.
110,9	101,1	98,2	93,5	87,7	84,6	85,6	85,7	88,3	88,4	86,0	83,1

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

EAEko ekonomiaren termometroa 83,1ean kokatu zen abenduan, eta hazkunde leuneko eremuan jarraitzen du, aurreko hilabetearen aldean 2,9 puntu galdu dituen arren. Inbertsioaren hazkundea apur bat moteldu da, baita kontsumoarena ere, baina orain jarduera osoaren batez besteko hazkundearen gaintik dago. Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzak eta zerbitzuek hazkunde nabarmena eskuratu dute, industriaren kasuan ez bezala, sektore horrek uzurtze egoeran segitzen baitu. Lan merkatuak sendotasuna erakutsi du berriro eta aurreko hilabetearekin alderatuta hoberantz egin du.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA .

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023		2023	2024				2024
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	1,7	1,4	1,7	1,5	1,7	2,3	2,9	2,1
Barneko azken kontsumoa	2,2	1,4	1,8	1,6	0,9	1,7	2,4	1,7
Familien kontsumoa	2,5	1,5	1,8	1,6	0,6	1,9	2,7	1,7
Administrazioaren kontsumoa	1,1	1,0	1,6	1,6	1,9	1,0	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	4,6	2,2	2,7	1,8	3,8	5,5	5,9	4,2
Barne eskariaren ekarpena	3,3	1,3	2,1	1,3	1,5	3,0	3,7	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,5	0,1	-0,3	0,2	0,1	-0,7	-0,9	-0,3
Lehen arloa	-8,6	5,6	-2,2	6,3	7,8	5,3	5,9	6,3
Industria	2,6	1,5	1,2	1,5	1,6	2,2	0,7	1,5
Eraikuntza	0,7	0,0	1,5	0,9	2,0	2,7	3,1	2,2
Zerbitzuak	1,7	1,3	2,0	1,3	1,6	2,4	3,5	2,2
Balio erantsi gordina	1,8	1,3	1,7	1,4	1,6	2,4	2,9	2,1
ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	2,6	1,8	2,3	1,7	1,5	2,9	2,1
Lanaldi osoko lanpostuak	1,1	1,2	1,3	1,3	1,1	1,8	2,1	1,6
Landunak (BJA)	0,8	0,5	0,7	0,8	0,4	0,8	1,2	0,8

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK.

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Ceprede	1,9	1,9	Laboral kutxa	1,7	—
BBVA	1,9	2,2	Confebask	1,5	—
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	2,5	Funcas	1,4	—
Eusko Jaurlaritza	1,7	2,1			

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
BPG	5,8	2,5	3,8	4,1	2,0	1,9	2,0
Kontsumo pribatua	4,8	1,7	2,2	2,6	1,7	0,4	2,3
Kontsumo publikoa	-0,2	3,8	1,6	1,9	4,6	4,6	4,4
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,4	0,6	-0,4	-0,2	1,3	-0,1	1,6
- Aktibo finko materialak	2,1	0,8	-0,1	0,3	1,7	0,0	1,3
- Eraikuntzan	2,6	2,2	1,2	3,1	3,6	1,1	1,1
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	-1,8	-2,0	-4,4	-1,8	-2,0	1,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,8	-0,3	-1,9	-2,8	-0,8	-0,4	3,0
Nazio eskaria (ekarpena)	2,9	1,7	0,7	1,3	1,9	1,4	2,1
Esportazioak	15,2	2,4	8,7	9,7	0,0	-1,1	1,2
Inportazioak	7,0	0,3	0,1	2,3	-0,3	-2,5	1,7

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025		2024	2025
CEPREDE	2,1	2,6	UniCredit	1,3	1,5
S&P Global Ratings	1,8	2,0	Econ Intelligence Unit	1,2	2,0
EthiFinance Ratings	1,7	1,9	HSBC	1,2	1,5
Fitch Ratings	1,6	2,0	Moody's Analytics	1,2	1,8
Goldman Sachs	1,5	1,7	Barclays	1,0	1,4
FUNCAS	1,5	1,7	Capital Economics	1,0	1,9
Inst. Estud. Económicos	1,5	—	Societe Generale CIB	0,9	1,1
BBVA	1,5	2,5	Batez bestekoa	1,3	1,8
UBS	1,5	1,9	Gobernua (2023-10)	2,0	—
La Caixa	1,4	2,0	Espainiako Bankua (2023-12)	1,6	1,9
Grupo Santander	1,4	2,0	Europar Batzordea (2023-11)	1,7	2,0
CEOE	1,4	—	NDF (2023-10)	1,7	2,1
Oxford Economics	1,4	1,7	ELGA (2023-11)	1,4	2,0

Iturria: Consensus Forecast.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2022	2023	2022		2023		
			IV	I	II	III	IV
AEB	1,9	2,5	0,7	1,7	2,4	2,9	3,1
Txina	3,0	5,2	2,9	4,5	6,3	4,9	5,2
Japonia	0,8	—	0,6	2,5	2,3	1,6	—
Kanada	3,8	—	2,2	1,8	1,2	0,5	—
Europar Batasuna	3,4	0,5	1,7	1,1	0,5	0,0	0,2
Eurogunea	3,4	0,5	1,8	1,3	0,6	0,0	0,1
Alemania	1,8	-0,3	0,8	-0,1	0,1	-0,3	-0,2
Frantzia	2,5	0,9	0,8	0,9	1,2	0,6	0,7
Erresuma Batua	4,3	—	0,6	0,4	0,3	0,3	—
Italia	3,7	0,8	1,6	2,1	0,3	0,1	0,5
Herbehereak	4,3	—	3,1	2,1	-0,1	-0,6	—

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2024KO URTARRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
AEB	1,4	1,7	2,6	2,3	4,2	4,2
Japonia	0,8	1,0	2,2	1,5	2,5	2,4
Kanada	0,4	1,9	2,5	2,1	6,3	6,2
Europar Batasuna	0,9	1,7	2,7	2,2	—	—
Eurogunea	0,5	1,3	2,2	2,0	6,8	6,8
Alemania	0,3	1,2	2,5	2,1	5,9	5,7
Frantzia	0,7	1,3	2,5	1,9	7,5	7,5
Erresuma Batua	0,2	1,0	2,7	2,2	4,7	4,8
Italia	0,5	1,0	2,0	1,8	7,8	7,8
Espainia	1,3	1,8	2,9	2,1	—	—
Herbehereak	0,5	1,6	2,3	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.